- (L) Aber, ba!

- Ba... hogei bat kilo ibiltzen zituen.

- (L) Getaitik Zarautzaiño juten zian [...] hartu zea, buruan, ta oiñez, Zarautza, e, Jaxinto?

- Bai. Oaingo aldian hor... Emakumiak oan'e iten due lana, baiño orduan'e lan txarra emakumiak, e!

45. Emakumeak antxoa fabriketan

- **Erref:** GET-003/011
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:21:55. **Bukatu:** 00:23:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Fabriketan ere emakumeek lan handia egiten zuten. Atunetako fabrikak gutxiago ziren, baina antxoatarakoak dozena inguru. Antxoei burua kentzen zieten lehenbizi eta gero esperientziadunek latetan jarri eta gatza ematen zieten. Antxoei burua kentzeko ez zen esperientziarik behar, umeak ere ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- (L) Zergatik orduan fabriketan emakumek iten zuen lana. Bai, ibiltzen zian fabrika bakoitzian bost-sei gizaseme. Baiño jeneala lanian emakumia bai antxuakin ta baita atunakin'e, e, Jaxinto? Emakumen lana izaten zan fabrikako hori.

- Hamen, hamen ordun lan asko. Lan asko. Fabrika asko zan gaiñea.

- Fabrikak zer zian, e, denetan eiten zan bai atuna, bai antxua, o...
 - Ez, ez. Atuna, hiru bat fabrika zauden. Bestela igual eongo zian dozena bat, o, zea, antxotako.
 - Antxotako.
 - Bai, dozena bat eo bai. Gehidxo.
 - (L) Igual zeoze gehidxo, e!
 - Gehidxo igual.
 - Eta, antxotakua izaten zan, zein izaten zan beaien lana?
 - Beno. Orduan antxua, batzuek burua kentzen eta geo bestiak latian jartzen. Behin lateko jartzen zituen pixkat zakienak...
 - (L) Gatzakin, gatzakin.
 - Zakienak. Ya emakumiak pixkat zakienak. Ta bestela berriz, edozein. Burua kentzeko, ba, igual basarritik, o...
 - (L) Jitano pillua.
 - Jitanua, bai. Baiño orduan jendia bertakua ibiltzen zan ta umiak'e bai. Ume txikidax'e buruk kentzen ibiltzen zian. Haidxek burua kendu eta geo ya pixkat emakume zakienei, ya, haidxei, artia bezelako... Latian ta kolokatu, gatz eman ta... Haien gain zeon zea, nola arraidxa atea, ta... Geo zaitu in behar izaten zan haidxek iten zuenian bere [salbuellakin] ta gauzakin ta. Hoidxek ya fabriketan gizonak eoten zian, bi-hiru gizon.
 - (L) Geo gatzare bere tamaiñan bota behar, ta makinan jarri behar, zeatik gatz gutxi bota baiozu, hura usteldu iten da.
 - Bai, bai. Ohittua zeona behintzat haidxek iten. Bestela hamen, burua kentzeko eozain.
 - Eozain.
 - Bai.

46. Bisigutako arrantza negua pasatzeko eta antxoatakoa dirua ateratzeko

- **Erref:** GET-003/012
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:26:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua

Laburpena:

Getarian 3 arrantza egiten ziren: antxoa, atuna eta bisigua. Garrantzitsuenak lehenengo biak ziren. Bisigutako arrantzak ez zuen diru asko ematen, baina jateko eta negua pasatzeko garrantzitsua zen. Neguan zorrak egiten ziren aparejuetan eta horiek udaberri inguruan kitatzen ziren antxoatan irabazitakoarekin. Otsail erdian hasten zen antxoatako garaia eta San Pedro ingurura arte (ekaina) luzatzen zen. Gipuzkoan Mutrikun eta Getarian egiten zen bakarrik bisigutan; Bizkaian hainbat herritan. Orion antxoatan eta angulatan egiten zen. Hango arrantzaleak baserritarak izaten ziren, sail handiagoak izaten zituzten.

Transkripzioa

Bisigutako arrantza negua pasatzeko eta antxoatakoa dirua ateratzeko

47. Antxoatako arrantza ardoran eta majuran

- **Erref:** GET-003/013
- **Iraupena:** 0:05:50. **Hasi:** 00:26:35. **Bukatu:** 00:32:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia

Laburpena:

Otsail erdialdean hasten zen antxoatako arrantza eta ordurako ontziak prest egoten ziren. Sarea hartu eta ez zen beste traste gehiagorik behar izaten. Lehenbiziko antxoa (freskoa) Donostian saltzen zen eta geroagokoa fabriketarako izaten zen. Iluntzean irteten ziren eta gau osoa egiten zuten (ARDORAN). Gauez harrapatzen ez bazen egunez izurdeekin joaten ziren MAJURAKO arrantzara. Izurdea aurkitu eta hari jarraitzen zitzaion. Hark arrainak gora aterarazten zituen eta orduan sarea botatzen zen. Hasierako urteetan Zarauzko kosta inguru horretan ibiltzen ziren antxoatan (ardoran) eta nahiko antxoa izaten zen bertan. Lehen ez zuten inolako aparaturik erabiltzen. ARDORA arrantza-moduaren izena nondik datorren. Harri bat (DANBARRIA) botatzen zen sokarekin lotuta uretara eta beldurturik antxoak mugitzean zuri-zuri ikusten zen ura. Arrantzarako zona onenak.

48. Astean 24 ordu bakarrik lehorrean

- **Erref:** GET-003/014
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:32:25. **Bukatu:** 00:35:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Aste osoa egiten zuten itsasoan: igandeko gauerditik larunbateko gauerdira. Sarea bustita ekarriz gero igande goizean hura lehortu behar izaten zen. Igande gauean elizako kanpaiaren zain egoten ziren denak itsasoratzeko. Gerora ostiral gauera arte ibiltzen ziren eta asteburua libre. Itsasoan gehiago irabazten zen lehorrean baino eta beraiek dirua izaten zuten, baina gastatzeko astirik ez. Igande arratsaldetan Zarautzera joaten ziren, baina 12etarako itzuli egin behar eta presaka beti.

49. Arrantzako prozesua urratsez urrats

- **Erref:** GET-003/015
- **Iraupena:** 0:05:05. **Hasi:** 00:35:10. **Bukatu:** 00:40:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Tostartekoen lan-banaketa; normalean bakoitzak bere lan finkoa izaten zuen. Itsasontziaren aurrean joaten zenak agintzen zuen sarea noiz bota uretara eta besteak prest egoten ziren. "Erria!" esan eta sarea botatzen zuten. Ontzia bueltan joaten zen eta gero makinilarekin sarea azpitik itxi egiten zen. Sarea eskuz jasotzen zen tiraka eta gorantz egin ahal ikusten zen zenbat arrain harrapatu zen. Txardanguarekin poltsa egiten zen eta bi zalabardorekin palketara (kaxa antzekoetara) husten zen arraina. Arrain asko zegoenean [munduak] erabiltzen ziren, salabardoa beheraino ez zen iristen eta. Maniobra osoa egiten ordubete inguru behar izaten zen. "Etxada" batean nahikoa bilduz gero portura joan eta benta zabaldu arte zain egoten ziren arraina saltzeko. Erabiltzen ziren neurriak arrua (20 kilo) eta kintala (50 kilo) (atunetan) izaten ziren.

50. Palkak nolakoak ziren eta zertarako erabiltzen ziren

- **Erref:** GET-003/016
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:40:15. **Bukatu:** 00:43:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

<p>Palkak antxoa husten zen kaxa antzekoak ziren. Lauki txikiak izaten ziren, antxoa ez mugitzeko barruan. Antxoatarako jartzen ziren palkak eta antxoa atera ahala txalupa-mutilek garbitu egiten zituzten. Bost arroa inguru kabituko ziren palka bakoitzean. sei kaxa inguru betez gero "poitua" egin zutela esaten zen.</p>

51. Poituaren inguruko azalpenak

- **Erref:** GET-003/017
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:43:05. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

<p>Poitua. Poitua zer zen. Arrain garestiena eramaten zen poiturako. Poiturako edo Partilarako izaten zen [arraina?]. Dirua normalean erdibana banatzen zen armadorearekin eta baita gastuak ere. Honen gaineko azalpenak.</p>

52. Armadoreekin harremana lagunartekoa zen

- **Erref:** GET-003/018
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:46:45. **Bukatu:** 00:50:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantzaleen arteko bereizketak

Laburpena:

Armadoreak getariarrak izaten ziren normalean eta baita arrantzaleak ere. Armadorea izaten zen patroia normalean. Beraiek harreman ona izaten zuten armadoreekin eta elkarrekin ibiltzen ziren. Andaluzia aldean armadoreak lehorrekoak izaten ziren eta beste kategoria batean egoten ziren, gainera. Tostartekoak nola hartzen ziren ontzirako. Bapore bakoitzean 2-3 lagun egoten ziren armadoreari ontziaren mantenuan laguntzen ziotenak: LAURDENEKUAK.

53. Arraina ontziratzearen inguruko azalpenak

- **Erref:** GET-003/019
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:50:30. **Bukatu:** 00:53:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

POLTSA: arraina harrapatutakoan egoten den zorroa. Honen inguruko azalpenak. Salabardoarekin gero poltsatik hartzen ziren arrainak. Arrain gehiago bazegoen poltsa beherago geratzen ze eta [munduarekin] hartu behar izaten ziren. Gerora peskanteak jarri ziren, garabiaren antzera funtzionatzen zuten egiturak eta hura aurrerapen handia zen. Gaur egun zenbaitek txupoiarekin ateratzen dute arraina poltsatik.

54. Harizko sareak tindatu egiten ziren kontserbatzeko

- **Erref:** GET-003/020
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:53:50. **Bukatu:** 00:58:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

<p>Sareak ez ziren urtero aldatzen, baina poltsa egiterakoan gehien hondatzen ziren aldeetan zati berriak jartzen ziren. Emakumeek egiten zuten lan hori. Hasieran harizko sareak erabiltzen ziren, eta, erraz usteltzen zirenez, astean behin atera egiten zituzten lehortzera. Kontserbatzeko tindatu egiten ziren. Galdara handi batean jartzen zen ura irakiten, hari tinda bota eta han sartzen ziren sareak. Txalupa-mutilak egiten zituen lan horiek. Gaur egun nylonezko sareak erabiltzen dira, gogorrakoak. Sare gehienak marroi kolorekoak izaten ziren.</p>

55. Sareen inguruko azalpenak: neurriak, nola bota...

- **Erref:** GET-003/021
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:58:10. **Bukatu:** 01:01:10

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

<p>Gauetz egiten zen antxoatako arrantzan sarea ur-azalean botatzen zen. Ze alturatan botatzen zuten sarea. Sareak ze neurri izaten zituen. Sarea berrogei metroan joaten zen ur-azpira eta gero gorantz harrapatzen ziren arrainak. Sareak goian kortxoa izaten zuen, eta behean "peuna". Eta gero, "txirritak" deitzen zieten aro batzuk, soka pasatzeko. Soka horrek ixten zuen sarea estutzean eta handik gorako arrainak hantxe harrapatzen ziren.</p>

56. Majua: izurdearekin egiten zen arrantza

- **Erref:** GET-003/022
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:01:10. **Bukatu:** 01:02:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

MAJUA. Egunez egiten zen arrantza-mota hau. Lehenbizi izurdea topatu behar izaten zen eta hari segitu. Halakoren batek hark arrainak ateratzen zituen ur-azpitik. Ontzi guztiak zain-zain egoten ziren eta izurdea ikusitakoan hurbilen zegoena azkar joaten zen sarea botatzera.

57. Majuako arrantzan konpainiak izaten ziren

- **Erref:** GET-004/001
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

MAJUA. Ontzi guztiak zain-zain egoten ziren eta majua irteten zenean hurbilen zegoena azkar joaten zen sarea botatzera. Harrapatutakoa ontzi guztien artean banatzen zuten (partila), hartara elkarren arteko haserrerik egon ez zedin. Konpainia edo ontzi-taldeak egunero aldatu egiten ziren. Batzuek tranpa ere egiten zuten arrainik ez zutela harrapatu esanez. Urrutiago zeudenek arraina harrapatu zela ikustean "dena emanda" joaten ziren konpainian sartzearen. Baina arraina harrapatu zuen ontziak jada soka gora jasota izanez gero ez ziren taldean sartzen.

Transkripzioa

- Eta majua, hortxe zai eoten zan ta, igual, zenbat?, minuto batzuek eoten zan han. Brast!, ertetzen zuan. Barkuak zai zabenak, zeifnei eran [...] zunak, hark jotzen zuan ondoena. Porke hemen zeona hor [botzen] bazuan, ez zuan horrek [botzen], honek. Eta [botzen] zun hark, eta bestiak, ta!,

gelditzen zan... Arraidxa baldin bazuan, partia bazekan honek.

- A, bai, e?

- Igual-igual, erdira.

- (Laguna) Bai, ba.

- Bi. Lau baldin bazaben, lau partetan. Lana haidxek in behar, bestela izango litzake alkar ondo [...]. Hartaka nola berdin dan, ba, errespetatu, eon ta eiten zuen, ba, biekin baldin bazan, ba, zuen partida hori bientzat berdin. Ta lau re baldin bazian, lauekin.

- Ta parte bardiñak?

- Berdiñak, ta...

- Berdin-berdiñak.

- Bai.

- (L) Geo gertatu zaken, geo, beste majua gehidxo're ateatzia. Ta geo igual laurak harrapatu arraidxa. Geo laurak harrapatzen bazuen arraidxa...

- Haidxekin parte suma, bai.

- (L) ...lauren suma, igual, parte, laurak igual.

- Bai, ta zea, lau haidxek konpañero eun hartan.

- Eun hartan.

- Eun hartan.

- (L) Hala izaten zan.

- Eta konpañiak egunero-egunero aldatu egiten zian? Edo gutxi gorabehera...

- Ez, ez, ez. Egunian egunekua.

- Egunian egunekua.

- (L) Aber ba! Zeiñentzat? Parte.

- Eta gertatu zaken, ba, hark arraidxa harrapatu ta lau partekuak'e harrapatu, ta danok berdin, hartaka... Beno, iten zuen geo konpañia haura juten zian ta juntatzen zian beste batian. Ta iten zuen partilla, lau barkoko jendiak, e, konpañikuak...

- (L) Konpañian sartzeko in behar zan saria bota, ta zuk aurreko ta atzeko txikota, nola ekartzekua? Haidxek kostaora ekarri, oseake, kortxua atze horretan kostaura ekarri. Zuk ekarri ta bestia ez zan sartzen konpañian. Entenditzen?

- Haik barrura ekarri ezkeo, ya...

- (L) Haidxek barrura ekarri ta "ez zea sartzen konpañian ezta [aillatuta]re!", esaten zan. Ta beste batzutan berriz, konpañe, han, zea, konpañiakua ta, zuk nahi ez badezu arraidxa barrun zeola, aurreko [txigota] suelto laga. Ta han hola beira: "harek ez zakek, ez die aurreko [txigota]", ta martxa ta [...].

- Engaiñatzeaitikan.

- (L) Holako, holako trapu erdi asko're bai.

- Bai, bai, engaiñatu, baiña zailla izaten zan.

- (L) Bai.

- Porke, banko bat ta da!, lixto eoten zian ta. Eta geo, aparte zeona're igual zeon bakarrik gertatu majuan, barko aleik gabe...

- (L) Bai, bai.

- ... eta aparte o. Ta dana emanda etortzen zian ta honek esan duna...

- (L) Bai.

- ... sokak presaka ekartzen, ekartzen, ekartzen... Ta haiek sartu ta aillatzen bazan, fuera, ez zun parteik. Baiño askotan, sartu baiño lehenuo sartu ta konpañe. Ixtori goorrak izaten zian hor.

- Sarian bueltan zeuden barkuak sartzen zian...

- Beno, saria bota...

- (L) Bai, zure bai, zure zea...

- ... soka barruan...

- (L) Bai...

- Beno, han kieto zabenak haidxek parte, porke han zaben. Baiño aparteotikan [...], dana emanda etortzen zan aillatzea soka hoidxek sartu baiño lehen, sartzen baldin bazian, konpañe.
- (L) Geo [...]’re iten zan jenealian, o jenealian, ahal den zeenak, geo axkarro ekartzeko ekartzeko ta, ez al dakik.
- Ahal dan azkarrena barruan eukitzeko soka. Pikardi goorak, ordun.

58. Arrantza-motak; bakoitzarentzat garai egokia

- **Erref:** GET-004/002
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Ilargia zegoenean egiten zen majuako arrantza, ilargiaren argiarekin ardora (arrainek mugitzean ateratzen zuten zuritasuna) ez zen ikusten eta. Majua egunez egiten zen eta ardora gauez. Majua aspaldi galdu zen. Orain [SARDAN] egiten omen da egunez. Honen inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- (L) Ordun zea txarra izaten zan, ta beti ez zuen ateatzen majua, eun guztidxan eon, izurdiakin hantxen asper... eun guztidxan, e! Hara ta honea ta hantxen. Majuik atea ez, ta itxea. Hua izaten zan txarra, e, Jaxinto?
- Bate gabe. Askotan bate gabe.
- (L) Bate gabe, izurdian gorabehera.
- Ta jenealian horrea juten zan ilargiya zeonian’e bai. Porke ilargitan ardora ez da ikusten. Ilargidxa baldin bazeon, ardora ez du iten. Bota harrika ta ez da iten. Eta aorduan gabaz ez zendun arrantza erabiltzen, ta majuta juten ziñan. Ta eunez arrantzatzen zan. Bestela, ardora zeonian gabaz zeatzen zan. Ta ikusten ez zalako, harrapatzeik ez.
- (L) Ilargidxa dola, ur gaiñia’re txuri-txuridxa eoten da...
- Zuri-zuridxa.
- (L) Ta ardora ikusten’e zailla ikusten .
- Argidxei.
- (L) Illuna, [...] illunakin ta errexo ikusten zea, fosforo hori.
- Eta garaian arabera izaten zan hobeto ardora in edo majuata jun o...
- Beno, majueta juten zan egun argiz, “alba”. Hamen gabaz, baita’re gabaz ibili ta izerrez, ta geo majueta, bai.
- Ezer ez bazan harrapatzen orduan eiten zan [...].
- Bai.
- (L) Geo... Aber, Jaxinto. Baiño oain, aspaldiko urte hauetan ta majuan ta ez, aspaldiko urte hauetan ta ez.
- Majua hura, haiek galdu zian.
- (L) Hura lehenotidxo zan, e!
- Aspaldi galdu zian.
- (L) Oan, harrezkeo gehidxo sardan. Gehidxo. Euna argitu ta sardan. Sarda da antxua ur gaiñian saltuka ikusi, sarda. Hori gehidxo, sardeta gehidxo, majua baiño, ya oaingo zeara.
- Egunez, egunez sarda ta.
- (L) Hoi egunez sardeta.
- Eta hori zer da, jun ta jun ta jun...

- Ez, inguruan jartzen dezu kala...
- (L) Hoi ikusi iten da apartetikan'e.
- Aparte.
- (L) Sarda nabarmena da.
- Haizia, haizien brixia nola uren gaiñian iten du "briiii" zea hori? Tipo horretan ikusten da.
- (L) Hamendikan urrutira ikusteko zeak dia hoidxek.
- Bai. Baiño igerri iten da.
- (L) Ur gaiñian dana saltoka ta harei igertzen zaio.
- Arraidxa daola igerri iten da, pixkat hartako dana, ba... Moimentua igerri iten zako arraidxai.
- (L) Bai.
- Apartea, e!
- (L) Geo antza ematen, antza eman, beno, nola dijuan saltoka-saltoka-saltoka. Hura itxi mutur hura, saria bota ta batzuek harrapatu, bestiak ez, ta.
- Gero bizimoua ardoratikan gehidxo majuetatikan baiño.
- (L) Bestela, ardora.
- Bai.
- (L) Bai, bai, bai, bai.

59. Majua hitzaren definizioa; beste zenbait esaera

- **Erref:** GET-004/003
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:06:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

MAJUA: berez izurdeak ateratzen duen arrain (antxoa) multzoari deitzen zaio. Hitz hori gero beste testuinguru batzuetara pasa da "suertea" adierarekin. "KALA IN DIU": gauza ona egin dela esateko erabiltzen da.

Transkripzioa

- Eta majua berez zer da majua? Majua da...
- Izurdiak ateatzen du, arraidxa ateatzen dunian.
- (L) Bai, bai, gorridxa. Antxua hor zabal eoten da antxua. Ta izurdiak iten ditu hori juntatu. Ta behetik gora atea ta juntatzen danian gorri-gorri gelditzen da, antxoa gorridxa [...], bai.
- Hilda, bate moimentuik gabe.
- (L) Akabo. Haor aurrian'e danak junta-junta inda. Ta hari saria bota.
- Baiña majua da antxua pillua?
- Huraxe da, huraxe da majua, bai.
- Antxoa pillo hori.
- (L) Bai, bai, bai.
- Bai, izurdiak ateatzen dun arrai hori, majua.
- (L) Baiño [...] beste gauza, majua horrei jarri izena, majua, e, antxua. Antxotan, majua. Ta iruitzen itsasoko gauza dala, ta geo izen hori beste gauzai in ziouk zeatu. Hik gauza on bat iten dek o, "koño, zeñek esaten ziaik [...], hau dek majua, hau!". Igual, ez zekit...
- Suertia, suertia bezela. Suertia. "Hau dek majua, hau!"
- (L) Ez zekit ze izango dan. Neska batekin dantza in ta [...], "jode, majua

hau! ". Hitz hori bea geo bestiai jarri.

- "Kalaa in diu" bezela esatia.
- (L) Bai, "kalaa in diu".
- "Kalaa in diu. Kalaa in diu".
- (L) Bai, ba.
- Kalaa?
- "Kalaa in diu".
- Kalai?
- Kalaa.
- Kalaa.
- "Kalaai ein diu".
- (L) Bai, "kalaa in diu".
- Zeoze, gauza...
- (L) Bai, zea dek hori, bai...
- Arrantza ona iten bazun, esaten zuen "kalaa earra in diu!".
- (L) Gauza on bat, gauza ona "kalaa" zea hori, bueno.
- Bai, bai, bai, bai.

60. Txoriei begiratzen zitzaien arraina non zegoen jakiteko

- **Erref:** GET-004/004
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:06:35. **Bukatu:** 00:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Natura » Flora

Laburpena:

Txoriei ere (batez ere glopei eta txirrinei) begiratzen zitzaien arrainak non zeuden jakiteko. Udar an atuna harrapatzeko gabaiei begiratzen zitzaien. Txirrinak nolakoak diren.

61. Poitoaren ohitura Alfonso Larrañagak ekarria Donostiatik

- **Erref:** GET-004/006
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:10:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

POITUaren kontua Xabierren aitak ekarri zuen Donostiatik, han lehenagotik zegoen ohitura hori eta. Patroia zen aita: Alfonso Larrañaga.

62. Saltzen ez ziren arrainei ematen zitzaien irtenbidea

- **Erref:** GET-004/007
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:10:35. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Saltzen ez zen arraina nekazariei saltzen zitzairen sororako, simaurretarako. Guardiarekin etortzen ziren bila. Beraiek ez dute ohitura hori asko ezagutu. Beraien garaian putzura botatzen ziren. Bestela, Donostian arrain-irina egiteko ere eramaten zen.

63. Arraina saltzearen inguruko kontuak

- **Erref:** GET-004/008
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:12:10. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Otsailetik ekainera antxoatan bakarrik egiten zen. Tarteka beste arrain klaseren bat ere harrapatzen zen (berdela edo txitxarroa), baina oso merkeak ziren eta albo batera uzten ziren. Lehengo mentalidadea: arraina saldu ez arren, etxera etorri beharrean berriz itsasora joaten ziren gehiagoren bila. Egunean eguneko freskoa behar izaten zen saltzeko. Fabrikak irekitzen zirenean lasaitua hartzen zen, hara denak saltzen zirelako. Otarretan sartu eta gurdian eramaten ziren fabrikara.

64. "Antxoa gorritan" zeri deitzen zitzaion

- **Erref:** GET-004/009
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

ANTXOA GORRITAN: antxoak gora begira egoten ziren geldi-geldi eguzkia hartzen bezala eta gorri-gorri ikusten zen.

65. Antxoatako arrantzaren inguruko kontuak

- **Erref:** GET-004/010
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:17:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa

Laburpena:

Antxoatan sarea botatzerakoan ez du garrantzirik itsasoak ze sakonera duen, garrantzitsuena antxoa ahalik goren egotea da. Hasieran ardoran uste zen sareak lurra jo beharra zuela antxoa harrapatzeko, baina ez zen hala.

66. Moilan "zanbullaka" ibiltzen ziren

- **Erref:** GET-004/012
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:21:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Beraiek moilan hartzen zuten bainua. Bainujantzirik ez zen izaten eta zaku zaharren batekin bainatzen ziren. Buruz behera salto egiteari "zanbulla" deitzen zioten eta bestela "salto". Zanbulla nahikoa egindakoan harri bero-beroaren gainean egoten ziren lehortzen. Hondartzara joaten ziren kanpotarrei begira ere egoten ziren.

67. Portu zaharra, "Atxerridxa"

- **Erref:** GET-004/013
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:21:10. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Moila zaharra ezagutu zuten (ATXERRIDXA), bertan enkailatzen zituzten ontziak. IMARAK eta POLTSEKUAK: ontziak lotzeko tresnak. Nolakoa zen portu zaharra. Astilleroa ere bertan zegoen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com